

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

5475

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 19koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita ondoko izendapena: Zadorra sistemako urtegiak (ES2110011) Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko irailaren 19ko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan Zadorra sistemako urtegiak (ES2110011) Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea aurretiaz onestea.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua-rekin bat, eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bategineko 22.2 artikulua-rekin bat, ingurumena babesteko helburu duten irabazte-asmorik gabeko erakundeen eta administrazioen entzunaldi-izapideak egin behar dira; baita jendaurrean jarri ere, eremuen izendapena, honako hauek adierazita: lekuaren kartografia mugapenarekin, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motak eta flora eta fauna espezieak, horien kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekua kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programa.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.e) artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea honako izendapen hau: Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako Zadorra sistemako urtegiak (ES2110011) Batasunaren Intereseko Lekua (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea; jendaurrean jarriko da, EHAAAn iragarki hau argitaratu eta biharamunetik, 2015eko otsailaren 25era arte. Epe horretan, egoki irizten dieten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da, bai egoitza elektronikoan (www.euskadi.eus/natura2000), bai EAEko Administrazio Orokorraren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Eusko Jaurlaritza

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.